

2.BULETINA



BASORA BEGIRA!

Motibazioa pizteko jarduerak egin ondoren gure herrietako basoetara begira jarriko gara!

Haur Hezkuntzan

TOK-TOK, NOR DA?

Basoan edo parke batean jolastuz, bertako elementuak ezagutu eta sentituko ditugu.

LH 1-2

IKUSI MENDIZALEAK, BASO...

Sentsazioekin jolastuz, zuhaitz batzuk desberdinduko ditugu beraien izenak ikasiz.

LH 3-4

BASOKO ALTXORRAK

Gustuko zuhaitzak, animaliak, nahikoa baso edo parke al dago herrian? Gertu al daude? Joaten gara?... Hau eta gehiago aztertuko dugu.

LH 5-6

BASOAN, ZUHAITZAK SOILIK?

Zuhaitzak, animaliak, egur hila, onddoak, likena... Basoak zuhaitzak baino gehiago dira! Libreki jolastuz zuhaitz artean basoaz gozatuko dugu.

DBH 1-2

BASO ZAHAR, BASO BERRI

Gure basoen landaretza potentziala ezagutu dugu. Lehen eta gaur egungo egoerak konparatuko ditugu.

DBH 3-4

EZAGUTZEN AL DITUGU HERRIKO BASOAK?

Kalean galdetuko dugu herritarren artean basoek duten garrantziaz eta ezagutza mailaz jabetzeko.

Batxilergoa

GURE HERRIKO BASOAK


Herriko basoen diagnostikoa egingo dugu eta Udal mailan dauden planak ezagutuko ditugu.

Lanbide eskolak

BASOA

Inguruko basora gerturatzeko eta ezagutzeko gauzatuko dugu ekimena. Aurretik aukerak aztertuko ditugu.

"Gauza txikietatik proiektu handiak
sortzen dira!"



Konpromisoen garaia
iritsi da.
Zer egin dezakegu
lortu nahi diren
helburuak (GIH)
betetzen laguntzeko?

15

LEHORREKO
EKOSISTEMETAKO
BIZITZA

- Gogoan izan behar ditugu GIHen helburu garrantzitsuenak: pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta pertsona guztiei oparotasuna bermatu.
- Konpromiso asko ez ditugu hartuko, ez da komeni. Hobe gutxi, baina betetzeko modukoak.

Hurrengo pausoa udal ordezkariengana zuzenduko gara gure proposamenak helarazteko!